



## HEZKUNTZA ETA HIRITARTASUNA

Eurodimentsioaren ezaugarri nagusiak ikusi ondoren, zehaztu nahi dizugu gure irakaskuntzan zelan gauza daitekeen.

Gure ustez, metodorik egokiena europar hiritartasunaren gaia erabiltzea izan daiteke. Guk bide horretan pauso bi ematea proposatu nahi dizuegu.

Lehenengo eta behin, europar hiritartasunaren zer-nolakoak azaldu ondoren, aztertuko dugu hiritartasunaren eta identitatearen arteko erlazioak zein arazo planteatu dezakeen. Azkenik, hiritartasun berriaren eredu bat, aktiboa, ikusiko dugu.

## HIRITARTASUNAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

### ZERTAN DEN

Maastricht-eko itunean jaio ondoren, europar hiritartasunak ezaugarri zehatz batzuk ditu. Aldez aurretik, baina, adierazi behar dugu Batasuneko hiritarrak estatu kideetako nazionalitatedunak direla. Horrek zehazten du “gu” nortzuk garen eta nortzuk ez diren (Peter van Ham “European Integration and the Postmodern Condition” London, 2001. 175.orr.).

Europar Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunean biltzen dira 39. artikulutik 46. artikulura ([www.europarl.eu.int/charter/default\\_es.htm](http://www.europarl.eu.int/charter/default_es.htm) edo [www.europarl.eu.int/charter/default\\_fr.htm](http://www.europarl.eu.int/charter/default_fr.htm)) hiritartasunaren ezaugarriak:

Batasuneko hiritarrak, bizileku duen estatuan, Europako Parlamenturako eta udaletarako hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea du; administrazio egokia izateko eskubidea; Batasunaren dokumentuak ezagutzeko eskubidea; europar arartekoari erreklamazioak egiteko eskubidea; Europako Parlamentuari eskabideak egiteko eskubidea; Batasunaren lurraldean bizitzeko eta mugitzeko eskubidea; eta EBtik kanpo EBko edozein estaturen laguntza diplomatiko eta kontsularra izateko eskubidea, baldin eta bere estatuak ezin badio lagundu.

### ZERTARAKO

Pentsatu zen legez, beharrezkoa da integrazioa aurrera eramango duen gizataldea, kidesun kultural eta ekonomikoaz gain, arlo juridiko-politikoan ere baturik egotea, halako moldean non Europar Batasunaren subjektu demokratikoa bilaka baitaiteke. Hortaz, europar herri bat –demos bat– sortzen hasi nahi izan zuten eta, horrexegatik, hiritarra eskubide bereziki politiko batzuekin jantzi zuten (ikus Luis Aguiar de Luque, hitzaurrea in Maria Fraile Ortiz “El significado de la ciudadanía europea” Madril, 2003. 17.-19. orr.).

### HIRITAR MOTAK

Lehenengo eta behin, nabarmendu behar dugu arestian aipatu eskubideak oso jende gutxirentzat direla benetan onuragarri. Esan dezakegu 1998an 5,5 milioi lagun baino ez zirela baliatzen eskubide horietaz, europar hiritarrak bakarrik erabil baititzake bere estatua ez den EBko beste batean badago (ikus Catherine Wihtol de Wender “La ciudadanía europea” Bartzelona, 1999. 97. orr.).

Europar Batasuneko biztanleetan, handika sailkatuz gero, hiru hiritar mota daude: hiritarrak, ia-hiritarrak eta arrotzak (ikus M. Mitchell eta D. Russell in T.P. Boje eta beste (edit) “European Societies. Fusion or Fission?” London, 1999. 173. eta 174. orr.).



Hiritarrak euren estatu kidean dauden EBko hiritarrak dira. Ia-hiritarrak, berriz, euren estatu kidean ez dauden europar hiritarrak dira -egoera horretan ez dituzte eskubide guztiak-. Arrotzak EBkoak ez direnak dira.

Hala eta guztiz ere, arrotzen kasuan oso egoera ezberdinak topa ditzakegu, izan ere, europar hiritartasuna estatu kideen naziotasun eta hiritartasunari atxikita dago eta berori eskuratzeko moduak ezberdinak dira estatu kide guztietan. Zenbat estatu, hainbat era.

### EUROPAR HIRITARTASUN ZABALA

Aspaldian, 1950ean, zehaztu zituen T.H. Marshall-ek hiritartasun zabalaren hiru arloak: zibila, politikoa eta soziala (T.H. Marshall -eta, edizio honetan, T. Bottomore-ren idazlantxo bat- "Citizenship and Social Class" London, 1992. 10. orr. Gaztelaniaz, "Ciudadanía y clase social" Madril, 1998. 22-23. orr.). Hiritartasun hori zabaldu izan da ekonomi eta komunitate eskubideak, kultur eskubideak adibidez, erantsiz. Bestalde, feministek aldarrikatu dutenez, hiritartasuna, eskubideak izatea ez ezik, egitea ere bada, eta ekologistek erantzukizun kolektiboa ere aintzat hartu behar dela adierazi dute (Gerard Delanty "Models of Citizenship: defining European Identity and Citizenship" in "Citizenship Studies" 1. bol, 3. zenb, 1997. 286. orr.).

Ildo beretik, batzuen iritziz, aspaldi honetan europar hiritartasuna Batasuneko erakundeek onartutako eskubide guztiez hornitu behar da. Bide horretan dator Funtsezko Eskubideen Gutuna hiritartasun europarrarekin lotzeko asmoa (ikus M. Fraile Ortiz, op cit. 41.-42. orr.).

Honela jokatzek kritikak ezberdin asko ekarri ditu (adibidez, Joseph Weiler-ek dioenez, "europar hiritarrek eskubideak ez baizik botereak behar dituzte", in A. Cantaro op. cit. 122. or. eta R. Fernandez Duran (eta beste) "Globalización capitalista" Bilbo, 2001. 188-190. orr.).

Dena den, M. Frailek berak hiritartasunaz bestelako iritzia dutenen argudio nagusia diosku: hiritartasuna erabakimen politikoari dagokio eta, haren ustez, funtsezko eskubideak pertsonei dagozkie, eta ez hiritarrei (op.cit. 405.-409. orr.).

## HIRITARTASUNA ETA IDENTITATEA

Ekonomia, politika eta gizarte aldetik Europar Batasunaren integrazio prozesuan aurrerapauso handiak eman dira. Hala ere, oraintxe dator zinezko erronka, horri segida emateko ezinbestekoa baita hiritarren jarrera positibo eta eraikitzailea.

Errealitate berri batekoak, hots, "Europar Batasunekoak" gara. Baina zail-zaila da europar hiritartasunaren sentimendua geureganatzea. Politikari, filosofo, zientzialari, idazle asko eta asko ahalegindu dira kidesun berri horren gakoak topatu eta azaltzen. Ekarpen horietako batzuk ikusiko ditugu, ikasgelan lagungarri izango zaizkigulakoan, ikerle gehienen ustez, hezkuntzaren egitekoa oso garrantzitsua baita.

Ikasle-irakasleok gogoeta egin, kritikatu eta ondorio propioak atera beharrean gaude, baldin eta benetan nahi badugu hezkuntzaren euordimentsioan parte hartu eta europar hiritarrak benetan, zuzenbidez eta iritziz, izan. Izan ere, europagintza hiritarrontzat onuragarria izan daiteke, guk kontrolatzen dugun neurrian eta guk nahi dugun Batasuna egiten bada.

Gai honen inguruan ideia bi hauek dira funtsezkoak:

- Batzuek diotenez, europar hiritartasuna, Europa osatzen dugunok zinez onar dezagun, estatu-hiritartasun edo nazio-atxikimenduaren osagarri edo aberasgarri legez planteatu behar da. Europa politikoa hiritarrek eraiki behar dute, eta ez alderantziz.
- Zeintzuk dira herriek eta hiritarrek Europar Batasunean elkar lanean eduki eta garatu nahi dituzten balio eta egitasmo kolektiboak?



Gai honetaz eztabaida asko egin izan da eta egiten da, europagintzan identitateari buruzkoa baita aspektu zailenetako bat (gehiago jakiteko, [3. eranskina](#) irakur dezakezu). Hala eta guztiz ere, garbi dago aspektu bi direla ezinbestekoak eztabaida horretan:

- Identitateak anizkunak dira. Europar identitatea, besteak bezala, identitate plural baten osagarrietako bat baino ez da.
- Europarrok, tokian tokiko identitateak abiapuntu, identitate partekatu edo komun bat behar dugu. Identitate partekatu hori eratzeko aproposa iruditzen zaigu, hezkuntzaren alorrean, hiritartasun aktiboa landu eta garatzea.

## HIRITARTASUN AKTIBOA

Aspaldidanik hiritartasun kontzeptua nazio estatuari lotua izan zaio. Bestalde, aurreko atalean azaldu bezala, hiritartasunak estatu-nazionalitatean du oinarria.

Hala ere, bestelako hiritartasun posible batez ere pentsatzen eta mintzatzen da Europan. Gu, europar zein irakasle garen aldetik, horiek ezagutu beharrean gaude.

- Prozesu soziala azpimarratzen da: dinamika parte hartzailea, norbanakoek balioak eta jokamoldeak elkarrekin partekatzea, bizitza publikoko arazoak konpontzeko erabakiak hartzea. Hiritarrek erabakimen behar bezain handi eta benetakoa eduki behar dute euren dagozkien edo eragin diezaieketen gai guztiei buruz.
- Hiritartasun honen kontzepzioan kidetasun sentimendua errespetatu behar da eta, ildo berean, norbanakoaren identitate guztiak ere bai.

Beraz, hiritartasun aktiboak gizartean parte hartzea eta eskubideak -zibikoak, politikoak, sozialak- maila guztietan erabiltzea, hasi tokikotik eta gorenaraino.

Baina, dudarik gabe, hiritartasun eredu hau ezartzea ezinezkoa edo oso zaila da baldin eta...

- Ongizate Estatuak, edozein sistema demokratikoren gutxieneko helburua, desegin eta behera bota nahi bada eta herritar askoren bizi-baldintzak (lana, hezkuntza, osasuna, etxebizitza) hondatzen badira.
- Generoen arteko desberdintasun juridiko, sozial, politiko eta kulturala bada.
- Kultura gutxitudun hiritar askoren kultura-eskubideak errespetatzen ez badira, oraingo estatu nazionalak kultura- eta politika-mugak bat izatea nahi duelako (Fraile, opus cit. 386 orr.).
- Oraingo jende askok ez badauka informazioaren gizartera heltzerik. Lan asko egin beharko litzateke, herritar guztiak, inor baztertu gabe, halako teknologiez baliatu ahal izateko.
- Oraingo estatuek, inmigratio handia dela bide gero eta polietniko eta kultura anizkunagokoak izaki, jende asko baztertzeko badute, gutxieneko bizi-baldintza egokirik (lan, etxe eta abarrik) gabe, eta askotan eskubide legalak ukaturik.
- Ipar-Hego desberdintasunak hain handiak badira, izan ere, badirudi horiek ezin direla gainditu eta egoera hobetu.
- Giza Eskubideen Gutuna aplikatzea eta benetan gauzatzea hain zaila bada.



Hala eta guztiz ere, eredu sozial egokia eratzeko, hiritartasuna garatu behar dugu, hiritar guztiei ongizate soziala ziurtatzeko, kolektibo ezberdinen arteko kohesio soziala lortzeko eta inmigrante eta talde minoritarioen bazterketa eragozteko.

Hiritartasun horren ezaugarrien laburpena Carneiro-ren dimentsioek ematen digute:

- **demokratikoa** (guztiok parte hartzea bideratzeko).
- **soziala** (bazterketaren kontra egiteko eta hiritar guztiei bizimodu duina ahalbidetzeko).
- **paritarioa** (genero aurreiritziak eta jokaera desagokiak gainditzeko).
- **interkulturala** (taldeen kultura eta eskubideen kohesio eta elkar errespeturako markoa antolatzen).
- eta **anbientala** (ingurumena zaindu eta iraunarazteko).

Carneiroren definizioa abiapuntutzat harturik, badirudi hezkuntza-komunitatean joratu eta landu daitezkeen arloak ugariak eta desberdinak direla. Zenbait orientazio xume ematen saiatuko gara, irakas praktikan aplikatzeko (irakur ezazu [4. eranskina](#); bertan hiritartasunaren alderdi guztiak aipatzen dira).